

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,  
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 13ko eta 2020ko maiatzaren 29an hartutako erabakien laburpena: Vitoria-Gasteizko udalerrian merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezartzeko nahiz halakoak eraberritu eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko berriazko deialdia onestea. 2020. urtea**

BDNS(Identif.): 509507

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke <http://www.pap.minhap.gob.es/bdns-trans/index>, baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

#### Lehena. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko negozio-lokaletan diruz lagun daitezkeen inbertsio-proiektuak gauzatu dituzten pertsona fisiko eta juridikoak, baldintza hauek betetzen dituztelarik: gehienez berrogeita hamar langile izatea, urteko negozio-bolumenak edo urteko balantze orokorrak hamar milioi euro ez gainditzea, eta aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza ez izatea bertan, eta lokal horietan Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren epigrafe hauetako merkataritza-jardueraren bat bideratzea:

64 Janari, edari eta tabako salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan (salbu 646: tabako gaien eta erretzaileentzako artikuluen salerosketa, txikizka, eta 647.5: janari eta edarien horniketa, tabakoa salbu, makina automatikoen bitartez).

65 Janariez bestelako produktuen salerosketa, txikizka, establezimendu iraunkorretan, hainbat salbuespenekin (salbu: 652.1: farmaziak: botika eta osasun eta higiene produktuen salerosketa, txikizka; 654.3: airetiko ibilgailuena; 654.4: ibai eta itsasoko ibilgailuena; 654.5: makinena; 654.6: mota guztietako ibilgailuetarako gurpil-azalen, banden edo aire-ganberena, eta 655: erregai eta lubrifikatzaileen salerosketa, txikizka).

662.2 Era guztietako salgaien salerosketa, txikizka.

691.1 Etxerako artikulua elektrikoaren konponketa.

691.9 Kontsumoko beste ondasun batzuen konponketa, BISG (beste inon sartu gabeak).

755 Bidaia agentziak, 755.1 izan ezik.

971.3 Arropak pasaratzea eta konpontzea.

972 Ile-apaindegi eta edertasun-zerbitzuak.

#### Bigarrena. Xedea

Vitoria-Gasteizko udalerrian merkataritza eta zerbitzu pertsonalen sektoreetako ekonomia-jarduera sustatzea, 2019ko ekainaren 7tik 2020ko uztailaren 17ra bitartean hainbat arlotan egindako inbertsioak diruz lagunduta: merkataritza-lokala eraberritzeko obrak eta lokalaren ekipamendua erosteko.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

**Hirugarrena. Oinarriak**

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren diru-laguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zenbakia), eta 2020ko martxoaren 13an eta maiatzaren 29an, berriz, 2020an Vitoria-Gasteizko udalerrian merkataritza eta zerbitzu pertsonalen alorretako enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren berariazko oinarriak. Udalaren Web gunean [www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

**Laugarrena. Zenbatekoa**

Laguntza deialdi honek 230.000,00 euroko zuzkidura du, 2020rako luzatutako udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 "Denda txikientzako laguntzak" partidaren kontura. II. eranskinean adierazten diren zonetan Erdi Aroko hirigunea, Koroatzea, Angloa, Pilar, Zabalgunea eta Lovaina, metro koadroko laguntza 180,00 eurokoa izango da, gehienez 20.000,00 euro arte. Gainerako zonetan, metro koadroko 150,00 euro, gehienez 16.000,00 euro arte.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

2020ko uztailaren 1etik uztailaren 17ra.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 2a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren  
eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua  
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*